

## **OLERKIAK**

### **AITA ELISEOREN BERTSO ETA OLERKIAK**

Aita Eliseo zanari omenaldia egin guran idatzi zituan hamai-ka olerki eskaintzen deusueguz hurrengo lerroetan. Karmeldar-ron hiru aldizkaritan argitaratu zituan: *Renacer* gerra zibil au-rreko karmeldar ikasleen barruko aldizkarian; Aita Santi Onaindiak sortu eta zuzendutako *Oleriti* olerki-aldizkarian, eta *Karmel* aldizkarian.

Gazte-gazte zala, 1939an, hiru olerki argitaratu zituan *Renacer* aldizkarian; olerki horreetan erlijioso-bizitzan eukan izena –Josu Umiaren Elisi anaia eta J. Umearen Sebasten A.– erabili zituan.

*Oleriti* eta *Karmel* aldizkarietan, ostera, launa olerki argitara-tu zituan bakoitzean, eta beti *Legor* (Lejarza-Gorostiza, bere bi deituren izenordeen laburdura) erabili eban. Olerki hauek 80-90. urteen arteakoak ditugu.

*J.U.*

### **Josutxu otz**

Renacer 4 (1936, otsaila, 29.zk.) 18.

Edurra... edurra;  
ta Josu laztana  
askatxo batian  
otz da... otz kutuna.

Zeru lurren jabe,  
Jaungoiko altsua  
Belengo txabolan  
otz... otz da Umetxua.

Negarrez ikusten  
Josutxu maitia  
bere soin biguna  
otz... baita guztia.

Belen inguruan  
edurra... edurra;  
eta estalpian  
Josutxu otz... otz da.

Josutxu askan otz.  
Maitasuna nai:  
maitasun bero,  
sutsua; baña, ¡ai!  
maitaleak urri  
aurkitzen ludian.  
Maitale, ez izango  
i, gogo zintzo, on?

Iruñatik 36-I-10

**Doibatz-eguzkia.**

Renacer 4 (1936, martxoa, [30]zk.) 43-44.

I

Eguzki mosu gorria  
agertu mendi ertzian,  
ta bere argi diz-dira  
ixuri ludi erdian.

Ezker-aldeko mendian  
agiri zan gaztelura  
ixuri eban lenengo  
diztilari argi ura.

Alaitasunez beterik  
solo, baso, gaztelua,  
baratz, zelai ta mendiak  
baita gaztelu ingurua.

Au ikusirik biotza  
asi goraltzen Jainkua  
eta berari zuzendu  
barreneko otoi sutsua.

II.

Baña euzki diz-dira  
argia bialtzen  
eta izpiakaz  
ludi au apaintzen,  
eta pozez betetan,  
asi baño len.

Akino gazteluan  
bada alaitasuna...  
Oetxo bigunean  
dagoan kutuna  
ekarri danana izan  
etxera zoruna.

Ume potolotxoa  
ta zoragarria  
esku txiki zuridun  
ta mosu gorria,  
noizbait izanduko da  
doibatz-eguzkia.

- - -

Aintza ludian  
Toma agurgarria  
ta donokian  
ke aintza zuria.

Iruñan 936 – II - 13

**Il da, baña... (jayobarri ildako nere anaitxoari)**

Renacer 4 (1936, ekaina, [31]zk.) 3.

Anaitxo bat nebanian  
neuria bai poza!  
Eta anaitxo ori il zanian  
samindu biotza!

Anai txikia azita  
beragaz jolastu.  
Baña, ai! umetxo il data  
orain ni nok poztu?

Betor kistarren uzkuertza  
niri laguntzera;  
saminez bai dot biotza  
ni atsegintzera.

Donokia dakustana  
anaitxo-ete?  
Iribarrez dagoana  
bai, bera da izan be.

Donokian ikusita  
amaitu da neke.  
Anai maitia il da baña  
zerutik nau baite.

Iruñan, 36-V-15.

### **Landara onetik frutu ona**

Olerti (1987-1990) 140.

Landara sorreratik zuzena,  
Taket-eusle bearrik ez.  
Lerden, gogor, ezetsu, ausarta  
kozkonduz gorputz-biotzez.  
Kimu barri ioritan oparo,  
frutuen itxaropenez.  
Kristo antzo santutasun, adin,  
jakiturian elduez.

Lotua, baiña guztiz librea,  
kontraesana itzetan-;  
Lokarri bigun, ikuseziña,  
funtsa biotz-taupadetan.  
Maitetasuna daroa izentzat...  
Palau-k dau txiki-txikitan  
kimua frutu egin, bereak  
ustuz esku-pobreetan.

Landara, gora-gora, luzetuz.  
Inguruan naastea;  
jauntxokeri, izkanbilla, gorroto  
ta pobretasun pobrea.  
Aske-lokarriz samurtu gura  
ain egoera tritea.  
Arazoon osakai, ebatzi  
Karmel-Ordenan sartzea.

Beso-eskuak tenk gorantz  
eske txiro goseti, moltzoka,  
gaixo osagaitz iguingarriz joak  
etxe-bazterretan aika.  
Frantzizkoren erraiek deadar  
gizadi gaizto onen aurka.  
Goseti, txiro, gaixo biurtzen  
premiatsuen babeska.

## **Gabon-poema**

Oleri (1983) 196.

*Illunpean ebillen erriak  
argi aundi bat ikusi dau.  
(Isaías 9,1)*

Gizona lurean  
bidazti antzitsu;  
arnasaz puztuko  
globoa.  
Gora ta gora nai;  
baiña, zast!  
estanda, utsitu ta  
beera.  
Gora, gora nai!  
Ezin. Beera dator.

Beea, argi bako  
trokarro tristea.  
Otz, ezo, lokatza...  
Besoak kurutzatu;  
gorputza biribildu;  
burua oiñetan.  
Zirkiñik ezin.  
Adorerik ez.  
Argia falta,  
arnasa.  
Giarrak gogor.  
Odola geldi.  
Beroa bear,  
beroa.

Noizbait dager  
goitik argi  
zorrotz, mee,  
errañu leun,  
bizigarri.  
Laztandu dau  
giza boila...  
Zirkindu au  
motel, poliki.

Edatuz doa  
argitasuna  
troka baltz, itsu,  
itunan,  
dizdiraz, beroz  
bizitzaz, alaiz,  
ustez beteaz  
goi-beak.

Suspertu da  
giza kilil;  
puz globoa.  
Gora, gora  
ortzi-ego  
zabaletan,  
argiaren  
sorburuan  
pulunpatzera.

**So ituna**

Olerti (1983) 195.

Ortzian lañorik ez  
-leio muga-gabe-,  
dizdiz milaka begi:  
neska leio-zale.

Kuskus, ixil, leiati  
begira, begira;  
ikusmin zirrarsuz  
aztertzen lurbira.

Zeri so ain luzea?  
Zerk odol bizitu?  
Zer guraz, erne, zorrotz  
lur au arakatu?

Burdin eztandalari  
izaki eraile...  
Mintz edendunak polpol...  
Uso otzanak alde...

Negar-errotarriaz  
eiotzen bizitza;  
odol gordin, mingorraz  
leertzen biotza.

Odei goibel, lodiak  
-negar, odol lurrun-  
Antzi garraitsuak,  
asazkatze astun.

Neskatil pinpiriñok,  
kuskusari mando,  
ikusmin au garratza!  
Itxi ortzi leio.

**Zatoz, eguzki**

Oleri (1987-1990) 138-139.

Laño baltz, argi goibel;  
egun naasia.  
Mendi gainak edurrez,  
Beerako euria.  
Gunak ezoz beratuz  
otz asegarria.  
Biotz-ondo barruan  
tristura etsia...

Gorputz-giar ta zanak,  
izotz-arri antzo,  
giltzak sor, oinak astun,  
urrats baldar, gogor.  
Odol bizigarria il.  
Biurtzen dana illotz.  
Oi negu anker, zital,  
zaarren eriotz!

Txoritxo egalari,  
abeslari trebe;  
kanta ta karta beti,  
izadiaren pozle.  
Gaur ixilik, gordeta,  
otzak ken adore;  
edo jan billa, mozkor,  
egaskada indargez.

Adar-ilotz, idorrak  
enborretan tente.  
Izotz-gaitzak barnetik  
elbarriaz bete.

Beso igar dirudie,  
 zeruari eske  
 bizitz-zorna barria.  
 Bizi, bizi, arren!

Noizbait desegingo zuk  
 argi alaigarri,  
 izotz-izurrite au.  
 Dagiala ebagi  
 zure mii zorrotzak  
 odei zoztor ori.  
 Zauri gordin ortatik  
 sar dadin eguzki.

Zauri estutik mear  
 erraiñu bizkorrak,  
 orratz fiñaren gisa  
 zulatuz aparra,  
 lurra jo, adiraziz  
 gero bizikorra,  
 itxaro-begientzat  
 zori iragarkorra.

Ao ikusgaitza apurka  
 zulo da biurtu.  
 Eguzkiaren suak  
 odeia suntsitu.  
 Illun nazkagarria  
 Argik dau uxatu.  
 Zerua urdinduz doa,  
 izadia poztuz.

Eguzkik laztan gozoz  
 artu dau berotan  
 izadi triste, otza

besarka berotan.  
Izotz-arri, edurra  
urtuz maite sutan...  
Urak kantari doaz  
abes polpoletan.

Adar-illotz, tenteak,  
zorna-eragiñez,  
ostoz betetzen asi;  
larra eriak, lorez;  
atso-aguren barna,  
zer bizigarriez.  
Dana bizi da bizi  
beroaren munez.

**Betirako besarkada**

Karmel 1991-3, 110-111.

Bi lupu xurgalari errotu,  
 sortzez, pikondo barrian.  
 Lurra gogor, urik ez. Lupuak  
 xurga-xurga. Landarean  
 bizitz nekosoia ta murrirtza,  
 ia oartzinean,  
 mugitzen. Gabezia, gosea  
 jabe dira-ta alor artan.

Mergaitz, aul, zailki, baina gorantz  
 doa landare samurra.  
 Leen ostoa, orizka, zimela;  
 lore, kolorge, tximurra...  
 Indarge, medar, erkin, begira,  
 gordeenean oldarra,  
 ezaren latzak tink josiriko  
 adore bizi, suarra.

Mundu anker! Atsaldia opa  
 eta zirikatu irrirtsa;  
 ez gozamenik, dana azpi-joko,  
 salkeria doilor utsa.  
 Idorrek, jo ta jo, zartakatu...  
 Adar-tenk, intziriz, otsa:  
 "Maitea, non zara ezkutaunik?  
 Dirdai, ludi, bere antza!"

Urratuz bidea pausuz-pausu,  
 oinatza izerdiz beratuz,  
 mendi-pendoitz gora doa Joan  
 GOI-SORGIN-ARGIK xoratuz.

Biotz urduri, gogo irakina,  
MAITEA-ren minetan su.  
Lore, zugatz, landa, mendi, iturri,  
bedar; dana BERE zantzu.

Loreak begiratu; ez, BERA.  
Landak, zearkatu; ezta.  
Iturrietan bear bada? Baña  
soilik MAITEA-ren azta.  
Barnerantz dagi so ete dagon,  
at aurkitzeaz etsita.  
Or, bai. Uxa idor, lor; eze, muna...  
Gaur dirau besarkatuta.

**Nire Pipilla**

Karmel 1992-2, 122.

Aurtxo samurra  
seaskan,  
ama ondoan gaztea.

- Lo, lo, enetxo,  
egin lo, neure pipiltxo.

Bi izar baltz amarenganantz  
tinko, kutunkeri eske.  
Erraietan da eztitu  
ta makurtuz, mosuz ase.

- Egin lo ta lo, ttuttultxo,  
zure lo, ames nik zainduko.

Izar-oialak bil;  
aurra lo-pozuan suntsi.

## Urte-barri gogaketak

Karmel 1993-1, 127.

Amets pozgarri, amets garratz,  
amets ez doa bizitza...  
Urte barri bat gu zamatuz,  
irribarre edo negartza.  
Euria beintzat, ausaz edurra...  
Egurats-eztalki, otza.  
Ixotz-sarrakioz, biziak  
gordeenean egoitza.

Urte bat geiago... Lor, zori  
atsegin, neke barriak.  
Oinkada, bakoitzez urratuz,  
gatx zein lizu ibilbideak.  
Ibai lez sortzen aalge,  
aul, baiña zizt ur-ariak;  
tanta-tanta, bigun, setati  
miazkatuz arri-lurrak...  
Damo z poliki, aldamenka  
nork leenengo pausoak.

Narraz eundaka erro txiki,  
emeki zola laztanduz,  
nora ezean lagun billa...  
Xume nabaitzen! Taldekatuz,  
ezustean, bat, bi, amar, eun,  
ur-erroak arro, ibaituz...  
Giza adina urte-arinketan  
doan bezela, koskonduz.

Urteak-urte, onezkero,  
taiututa dauka uraska.

Eta ibaia badoa ausarta,  
zotarrainean labanka,  
arri, zamar, lur, dana iruntsiz  
geldiezinez indarka,  
itsas-jaunak mantsotu arte  
abiadaren bardaska.

Norbera ere pausoz pauso  
doa bidea egiñez.  
Gotortuz soin-enbor, adarrak;  
bular, buru tenkatuez.  
Gangar pertxenta, burgoia zut.  
Austuz dana griña-garraz...  
Zaar utsaltasunak ezi,  
eriotz altzoan gordez.

### **Ertzak bat**

Karmel 1993-4, 112.

Gora... Gorago... Jainko...  
Txiki... Ume... Txiro...  
Ertzik-ertz, urrinak ur,  
alkartu, lotu...

Argi? Ez ikusten.  
Argi dago dana;  
bizitz, izatea  
argi-argi, nundik?

Goiz-eguzkiak diz!  
Bat-batera uxa  
ilun, laño; argiz  
laztanduz dan oro.

Barne-muinetan Zuk  
goibel, griñak izu,  
ARGI MEE, IKUSGATX,  
baina dir-dir zorrotz.

Ez, ez da itzal bat.  
Itzal dau egiten.  
Ez da, ez, sugarra,  
su biziz ber girotzen.

Goi, txiki; urrun, ur;  
Jainkoa, gizona;  
itzal, argi ta su;  
danetan bat: BERA.